

EL GOIBAR - 743. zenb. - XVIII urtea - 2010-06-04

# B

BARREN

TOKIKOM



## ***Big band, musika eztanda***

***Iban Guinea, big band-aren zuzendaria***



## **Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan**

**Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu**

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean**
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe**
- "invisaling" ortodontzi ikusezina**
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)**
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak**
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte**

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

**943 366 377**

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22  
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

## Zergatik larrialdi zerbitzurik gabe?

Dagoeneko denok dakigu anbulategiko larrialdi zerbitzua kendu egingo digutela. Horren ondorio latzak ikusirik, Elgoibarko herria erabaki honen aurka sinatzera gonbidatu genuen. Lehenik eta behin gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu joan zen larunbatean emandako erantzunagatik. Sinatu ez baduzue ere, jakin ezazue oraindik garaiz zaudetela. Orriak zenbait dendatan eta anbulategian dauzkazue.

Eta orain datuak: hiru kriterio erabili dituzte (erabilera, biztanlegoa eta ospitalerako distantzia) hiru herriren artean (Ermua, Zumarraga eta Elgoibar) konparaketa egiteko. Aipaturiko hiru irizpideak kontuan hartuta, datuak hiru herrietan oso antzerakoak dira, eta Elgoibarkoak beste bien tartean daude. Azpimarratzekoa da, gainera, Zumarragak ospitalea bertan daukala.

Kriterio horiek ikusita, argi dago ez dagoela ezberdintasunik hiru herrien artean. Zein izan da orduan benetako irizpidea?

Ez dugu inongo larrialdi zerbitzurik kentzerik nahi; ongizate gizartean atzerapen handia da hau, eta behin eta berriz kaltetuenak baliabide gutxien daukatenak izango dira.

Egin dezagun denok bat itxiera honen aurka!!



Iñigo Cearsolo,  
Elgoibarko  
Eusko Alkartasuna

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Ez dugu inongo larrialdi zerbitzurik kentzerik nahi; ongizate gizartean atzerapen handia da hau, eta behin eta berriz kaltetuenak baliabide gutxien daukatenak izango dira”**

**UNAI SALEGI  
ETA MIKEL  
UGARTETXEAREN  
APUSTUKO  
IRUDIAK  
JARRIKO  
DITUGU  
ASTELEHENEAN!**



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA



# IBAN GUINEA

**BIG BAND-AREN ZUZENDARIA**

**“Big band-ak biltzen dituen musika estilo guztiak joko ditugu, jendeak gozatzeko”**

Iban Guineak 29 urte ditu, eta ia bizi osoa musikari lotuta eman du. 8 urte zituela hasi zituen Solfeo ikasketak, eta handik pare bat urtera tronboia jotzen hasi zen. Jazz eta fank estiloko musika gustatzen zaio, egiteko eta entzuteko. Bere azken proiektua Elgoibarko *big band*-a sortzea izan da, eta gaur eskainiko dute kontzertua 22:30etik aurrera, Madalako parkean.



**Gainerako taldeekin konparatuta, zein berezitasun ditu *big band*-ak?**

Jazz talde handi bat da *big band*-a. Bost saxofoi izaten ditu, baritono bat, bi tenor eta bi altu; bi eta lau tronboi artean izan ditzake, hiruzpalau tronpeta, pianoa, baxua, bateria eta batzuetan gitarra ere bai. 20ko hamarkada amaieran hasi ziren sortzen, Estatu Batuetan, eta, 30eko hamarkadatik 40ko erdialdera arte izan zen *big band*-en punturik gorena; urrezko garaia esaten dena. Gero beste musika estilo batzuek aurrea hartu zioten, baina *big band*-ek beti egin izan dute aurrera.

**Elgoibarko *big band*-a zenbat lagunek osatzen duzue?**

Elgoibarren musikari on asko ditugu, eta *big band*-ak behar dituen partaide guztiak ditugu. 15-16 lagun gaude, eta akaso tronboi

bat falta zaigu. Niri gustatuko litzaidake leku hori betetzea, baina taldeko zuzendaria naitenez, ezin dut.

**Nola bururatu zitzaizun Elgoibarren horrelako talde bat sortzea?**

Egia esan behar badut, ez zitzaidan niri bururatu. Elgoibarko musika eskolan hasi nintzen irakasle lanetan, eta haiek eskatu zidaten. Musika eskolak 25 urte egin zituen iaz, eta Santa Zezilia egunerako kontzertu berezi bat prestatzea nahi zuten. *Big band* talde bat osatuz hiruzpalau pieza jotzea bururatu zitzaien, eta niri eskaini zidaten lan hori. Oso ondo etorri zitzaidan: urtebete inguru nenbilen zuzendari lanak ikasten, eta Musikenen lau urteko jazz-tronboi ikasketak amaitu berri nituen. Musikenen, gainera, *big band* talde bat ere badago, eta lau urtez jo izan dut ber-

tan, oso zuzendari onekin. Besteak beste, Iñaki Askunze, John Dubuclet, Dusko Goikovich eta Bob Sands izan ditut zuzendari. Azken honekin hiru urte egin nituen, eta pila bat ikasi nuen. Han ikasitakoa hemen erakusten saiatu nintzen. Musika eskolako irakasleekin eta Udal Musika Bandan jotzen duten ikasle ohiekin osatu genuen taldea. Kontzertua eman genuen, eta jendeari asko gustatu zitzaion. Musikariak ere oso gustura geratu ziren.

**Hori ikusita, aurrera segitzea erabaki zenuen.**

Bai, baina gure kontura, eta *hobby* moduan. Hilabeteko atsedena hartu genuen, eta bigarren kontzertua San Anton egunean eman genuen, Herriko Antzokian. Ertzantzaren Bandak ezin izan zuen etorri, eta Elgoi-



barko musika bandak kontzertu asko zeuzkanez agendan, saio hori erdibana egitea pentsatu genuen. Taldearen aurkezpena izan zen, eta herritarrei izugarri gustatu zitzairen.

**Eta, gaur, zer eskainiko duzue Madalako kontzertuan?**

Ordubete inguruko kontzertua izango da, eta musika estilo askotako abestiak aukeratzeko ahalgintza izango da: swing klasikoa, latin jazz, bossa nova, baladak, rock estiloa, jazz fusion... *Big band*-ak barneratzen dituen estilo guztiak joko ditugu, jendeak gustura entzun dezan. Gure taldearen ezaugarrietara moldatutako abestiak bilatzen saiatu naiz. Ez gara talde profesionala, baina nire asmoa ahalik eta soinu profesionalena lortzea da. Uste dut Elgoibarren ez dela sekula horrelakorik egin, eta jendea gustatuko zaiolakoan nago.

**Udalak Madalako gunea indartu nahi du, eta zuen ekitaldia izango da lehenengoa. Zer iruditzen zaizue leku hori?**

*Big band* estiloko kontzertuak oso ondo funtzionatzen du aire librean, eta iluntze partean. Aulki batzuk jarriko ditugu parkean, ikusleak ez daitezkeen eszenatokitik urrun egon. Leku aproposa iruditzen zaigu, eta eszenatokia ere oso ondo dago. Udalak eta guk ere ahalgintza handia egin dugu kontzertua antolatzeke.

**Denbora asko behar izan duzue kontzertua prestatzeko?**

Martxo aldera hasi ginen lanean, eta hamabi pieza inguru ditugu. Hasieran astean behin egiten genituen entseguak, baina azken asteotan gehiagotan biltzen gara. Batzutan talde osoa elkartzen gara, eta beste entsegu batzuk zatika egiten ditugu.

**“Musika ikasketetan lau edo bost ordu eman behar dira egunero instrumentua jotzen”**

**Orain zuzendari lanetan diharduzu, baina gogoratzen al zara noiz eta nola hasi zinen musika ikasten?**

Musika eskolan hasi nintzen solfeo ikasten. Ondoren tronboia jotzen hasi nintzen. Ez zen oso instrumentu ohikoa umeen artean, baina nire lehengusu Aitor Larreak jotzen zuenez, hura aukeratu nuen. Institutuko ikasketak amaitu ostean, modulu bat egin nuen, eta ingeniari-taldea ikasketak egiteko hartu ninduten. Une horretan musika ikasten jarraitzea erabaki nuen. Etxean ondo hartu zuten, eta Donostian egin nituen goi mailako musika klasiko ikasketak. Ondoren, lau urtez Musikenen jazz tronboi ikasketak egin nituen, eta orain irakaslea naiz. Jende askok uste duena baino gogorragoa da musika ikasketak egitea. Hemen ez du balio azken orduan ikasteak, eta gainerako ikasketetan egon daitezkeen lanez gain, egunero lau edo bost ordu eman behar dira instrumentua jotzen. Asteburuetan, oporretan edo jai egunetan ere bai.

**Afizio bezala hasi zena, gaur egun zure ofizioa da.**

Bai, eta gogorra den arren, oso pozik nago. Beste lan batzutan egunean zortzi or-

du egiten dituzte, eta asteburuetan ez da lanik egiten, baina ni musikak betetzen nau, eta gustura egiten dut lan. Ez naiz daramuten Ingeniaritzaren ordean musika aukeratu izanaz. Zorionez, gainera, ez zait lanik falta. Krisi garaian honetan jende asko dago langabezia, baina nik hainbat musika eskolatan ematen ditut klaseak. Horrez gain, zenbait musika taldeetatik deitzen didate noizean behin kontzertuak emateko.

**Zer duzu nahiago, aginduak ematea ala jasotzea?**

Zuzendari lanetan hasiberria naiz, eta oraindik asko daukat ikasketako. Bost urteko ikasketak daude zuzendaritzari lotuta! Gustatzen zait zuzentzea, baina askoz zailagoa da. Ordu gehiago eskatzen ditu, eta ardura handiko postua da. Musikari moduan jardutea errazagoa edo erosagoa da.

**Aurrera begira, zein da zure asmoa?**

*Big band*-a guretzat *hobby* bat da. Ez gara honetaz bizi, eta ez daukagu inolako obligaziorik. Nahi dugulako eta nahi dugunean jotzen dugu. Ondo pasatzea eta gozatzea da gure helburua. Hala ere, seriozitatez hartzen dugu lana, baina obligazio eta zailtasunaren arteko oreka mantentzen saiatzen naiz. Gure asmoa urtean bi edo hiru kontzertu ematea da, eta hortik aparte zeozer ateratzen bada, denon artean erabakiko dugu nahi dugun ala ez. Pertsonalki hiru alorretan nabil: irakasle, zuzendari eta musikari. Hirurak uztartzen segitzea da nire helburua, eta posible izango balitz musika banda edo orkestra profesionalen bateko partaide izatea gustatuko litzaidake.

**Ainhoa Andonegi**

## ELGOIBARKO BIG BAND-eko KIDEAK

**ZUZENDARIA:** Iban Guinea.

**SAXOFOIAK:** Miguel Goiburu, Fernando Ansola, Aitor Jauregi, Alberto Cardaba, Julen Azpiazu.

**TRONBOIAK:** David Garrido, Beñat Konde.

**TRONPETAK:** Aitor Olasolo, Hector Garrido, Beñat Bilbao, Bitxor Alberdi.

**BATERIA:** Elur Arrieta.

**PIANOA:** Naroa Garcia.

**BAXU ELEKTRIKOA:** Iñigo Araujo.

*Iban Guinea taldea zuzentzen, San Anton eguneko kontzertuan.*



# GAUEKO LARRIALDI ZERBITZURIK GABE BIHARTIK AURRERA

Zapatutik aurrera Elgoibarko eta Hernaniko anbulategietan ez da gauerdetik aurrerako larrialdi zerbitzurik izango. Legazpikoa, berriz, guztiz itxiko dute. Hala erabaki du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Erabaki horrek hautsak harrotu ditu, eta murrizketa horiek bertan behera lagatzeko eskatzeko, Elgoibarko anbulategiko larrialdi zerbitzuetako langileek eta EAK sinadurak biltzeari ekin diote, nork bere aldetik. Anbulategian, ehunka sinadura batu dituzte.

Ainara Argoitia

Osasun Zerbitzuak berrantolatzen dihardu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta plan horren eraginak Elgoibarren eta Mendaron ere igarriko dira. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 104 anbulategietatik 48 zapatueta itxi egingo zituztela jakinarazi zuten lehendabizi, eta neurri horrek Mutriku eta Debari ere eragingo ziela jakin genuen gero. Ondoren, anbulategietako larrialdi zerbitzu askotan (PAC) ere murrizketak izango zirela jakinarazi zuten. Gipuzkoan, Legazpikoa itxi egingo zutela zehaztu zuten, eta Hernanikoan eta Elgoibarkoan, berriz, gaueko arreta zerbitzua kenduko zutela.

Erabaki horrek urtero 300.000 euro aurreztea ekarriko duela esan du berriki Julian Perez Gil Osakidetzako zuzendari nagusiak, baina azaldu du aldaketa dirua aurrezteagatik barik "antolaketa irizpideengatik" hartu dutela. Edozelan dela ere, erabaki horrek zeresan handia eman du bazterretan, eta Elgoibarren ere bolo-bolo dabil gaia kalean. BARREnek elkarrizketatutako herritar guztiak bat datoz gaueko larrialdi zerbitzua kentzea atzerapausoa dela esatean, eta iritzi horren adierazgarri da, era berean, anbulategian ehunka sinadura batu izana.

Sindikatuak ere hasiak dira gaia lantzen, eta eguna zehaztu ez badute ere, biltzekoak direla jakinarazi dio Sabin Zenarrutzebeitia LABeko ordezkariak aldizkari honi. EAK, bestalde, sinadura bilketa hasi zuen joan zen zapatuan. Nolanahi ere, anbulategiko langileak harrituta daude gai honek Udaleko ordezkarien artean izandako oihartzun txikiagatik. "Nik dakidala EAK bakarrik adierazi du bere jarrera, eta harrigarria egiten zaigu hori. Nola da posible besterik gabe onartzea osasun zerbitzu bat kentzea? Bada hilabete inguru gai honen berri dutela, baina momentuz ez dute interesik agertu. Hernanin gure antzera daude, baina han Udala ere kontra posizionatu da. Gai honi buruzko mozioa ere aztertu zuten Osoko Bilkuran", esan du Joxean Ugarteburu anbulategiko langileak.

Maiatzaren 10ean jakinarazi zieten Elgoibarko anbulategiko larrialdi zerbitzuko hamabi langileei gauetako arreta kentzeko erabakia, ba-



tzar batean. Hiru irizpideren arabera hartutako erabakia zela esan zieten: anbulategi horri dagozkion osasun txartel kopurua (TIS), erreferentziako ospitalearekiko distantzia eta arreta gune horretako jarduera edo aktibitatea.

## Zerbitzuen berrantolaketa

Orain arte, Elgoibarko anbulategiko larrialdi zerbitzuek Soraluze, Mendaro, Elgoibar, Deba eta Mutriku hartzen zuten, baina hemendik aurrerako aldaketekin, Soraluzeko herritarrek Eibarko PACera bideratuko dituzte, Mutriku eta Debakoak, Ondarrukora, eta Elgoibar-koak eta Mendarokoak, Mendaroko ospitalera. Elgoibarko anbulategiko langileak, baina, ez daude gustura Osakidetzak emandako arrazoiekin. "Gure antzeko ezaugarriak dituzten beste hiru PAC edo arreta gune aztertu ditugu, Osakidetzak emandako irizpide horiek kontuan hartuta: Eibarkoa, Ermukoa eta Zumarragakoa. Argi ikusi dugu erabakia ez dutela esandako irizpide horien arabera hartu. Datuak oso antzekoak direlako guztietan, baina itxi Elgoibarkoa bakarrik itxi dutelako", azaldu du Aitor Arreiseigor larrialdi zerbitzuko sendagileak.



Adibide horietako bat aukeratzearen, Zumarragako eta Elgoibar-ko datuak alderatu ditu BARRENEK. Zumarragako PACari Elgoibarkoari baino 8.818 osasun txartel gutxiago dagozkio berez: 19.328 [bihartik aurrera, Legazpikoak ere gehituko zaizkio, eta 28.634 izango dira, Elgoibarren baino 488 gehiago]. Aldiz, aktibitatea oso antzekoa da bietan. Sei hilabetean, Elgoibarren 268 lagun artatu dituzte, eta Zumarragan, berriz, 290. Erreferentziatzko ospitaletik dagoen distantzia, berriz, oso adierazgarria da bi kasu hauetan. Elgoibarko anbulategiko larrialdi zerbitzuko erabiltzaileek bost kilometrora dute Mendaroko Ospitala [Soraluzekoek, gehiago] eta Zumarragakoek, berriz, herrian bertan dute ospitala. “Garbi dago beste irizpide bat hartu dutela aintzat kasu honetan. Zumarragako Udala PSEkoa da, eta Elgoibarkoa, ez. Zergatik ixten dituzte Hernanikoa eta Elgoibarkoa, eta ez Eibarkoa, Ermukoa edo Zumarragakoa?” esan du Ugarteburuk. Bat dator Arreisegor ere.

Elgoibar 11.000 biztanle baino gehigoko herria izanda, anbulategiko larrialdi zerbitzuko langileek ez dute ulertzen nola kendu dezaketen gauerditik aurrerako arreta zerbitzua. “Hona etortzen direnak ahalbide gutxien dituztenak dira, asko eta asko edadetuak edo ospitalera joateko modurik ez dutenak. Mendaroarren kasuan, ezberdina da, herrian bertan dutelako ospitala eta errazagoa zaielako gora igotea. Gu geuk lanpostu finkoa daukagu, baina herritarrei egiten zaien kaltea bistakoa da”, zehaztu du Ugarteburuk. Ez du ulertzen erabaki hauek nola hartzen diren langileen iritzia entzun gabe. Gipuzkoako anbulategietako larrialdi zerbitzuetan 160 langile inguru dira, eta horietatik 130 inguruk Osasun Sailaren erabaki honen kontrako agiria sinatu berri dute.

Astelehenean, anbulategietako larrialdi zerbitzuetako langileen komisia Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarekin batu zen Gasteizen, euren kezka agertzeko. Bi eskaerarekin joan ziren: batetik, larrialdietako arretarako plan estrategiko bat egin arte, murrizketa horiek guztiak bertan behera lagatzeko, eta bestetik, zapatu goizetan anbulategiak ixteko erabakia aztertzeke. Bileran hartan izan zen Arreisegor ere. “Lehenengo proposamenari ezetz borobilarekin erantzun zioten, eta bigarrenaren kasuan, negoziatzeko keinua egin zuten, baina ikusi

egin beharko da. Plan estrategiko hori egitea aspaldiko eskaera da. Itxi behar badira, itxi egin beharko dira, baina, lehenengo, beharrak zeintzuk diren aztertu beharko dugu. Gerta daiteke ospitaleetako larrialdi zerbitzuak arintzeko PACetakoak indartu behar izatea ere. Aztertu gaube, ez dago jakiterik”.

## Mendaroko larrialdi zerbitzua

Heritar batzuen artean zabaldu den ustea ere gezurtatu dute Ugarteburuk eta Arreisegorrek. Anbulategiko larrialdi zerbitzura joatea alferrekoa izaten dela dute zenbaitek, handik berehala Mendaroko Ospitalera bidaltzen dutelakoan. Ugartebururen arabera, baina, “uste okerra” da hori. Elgoibarko gaueko larrialdi zerbitzura gerturatzen diren hamar lagunetik zortzi anbulategian bertan artatzen dituztela esan du horren harira, eta ospitalera bideratzen dituztenetako asko traumatologia arazoengatik bidaltzen dituztela. “Hemen ez daukagu kasu horiek artatzeko aparaturik”. Ondorioz, gaueko larrialdi zerbitzua kentzeak Mendaroko Ospitaleko larrialdi zerbitzuak gainezka egitea ekar dezakeela uste du Ugarteburuk.

Gorka Sarasola Mendaroko Ospitaleko gerenteak ez du momentuz horren arriskurik ikusten, baina gogoeta bat egiteko adina datu ez duela nabarmendu du horren harira. “Ez daukagu horren beldurrik, baina inpresioak baino ez dira, daturik ez daukagulako oraingoz. Iruditzen zaigu ez dela horrenbesteko aldea izango, baina ikusi egin beharko da. Beharbada errefortzuak eskatu beharko dira. Dioxosozko botel- lori horrek kezkatzen nau gehien, astero izaten direlako horrekin lotutako kontuak, baina aurki, hamabost egun barru, larrialdi zerbitzuetako gune berria ere zabalduko dugu hemen, eta ikusi egin beharko dugu. Mendaroko Ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka eginda dagoen ustea, baina, okerra da”. Sarasolak aurreratu du datorren asterako dutela bilera eskatuta Osakidetzako agintariekin.

Anbulategietako larrialdi zerbitzuetako langileen batzordea ere gaur zortzi bilduko da berriz Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariarekin. “Ez gaude amore emateko prest, behintzat arrazoizko erantzun bat jaso arte”, ohartarazi du Arreisegorrek.

**“Hona etortzen  
diren hamar  
lagunetik zortzi  
tratamendua  
jarrita joaten  
dira etxera”**



*Herritarrak ilara egiten Elgoibarko anbulategian.*



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Pilar ikastetxea guztion oroimenean

3 urte bete gabe nituen amak eskutik lehen aldiz eskolara eraman ninduen. Nahiz eta neu ez naizen gogoratzin, pozik joan omen nintzen lagunekin jolasteko asmotan. Egun hartako nahia betetzeaz gain, orduan ulertu ezin nuen beste altxor bat ere eskuratu nuen: giza balioetan oinarritutako heziketa. Hogeita hamar urte beranduago, urriaren 12an neuk eraman nuen eskutik 3 urteko alaba Pilarrera. Orduan esplikatun txikia nintzen hura zela nire eskola. Sinestea kosta zitzaion arren, esan nion aspaldi-aspaldi aittittak ez zeukala biboterik eta eskolara joaten zela, eta berak era bertan ikasi zuela. Ekainaren bukaeran ikastetxeak ateak itxiko dituen arren, etorkizunearan ere herritarren zerbitzura jarraituko du Pilarreko egoitzak. Baliteke gure azken urratsak lehenak eman genituen toki berean ematea, eta hala balitz, ziur nago haurtzaroko oroitzenak eta garai haietako barenen oihartzunek atseginago egingo dutela gure egonaldia. Etorkizunak zer dakarkigun ez dakigun arren, iraganean eskainitako aukerak gure bidea egiten lagundu digutela ziurtatu dezaket. Horregatik, eskola egun haietan bide lagun izan nituen guztiei eskerrikerik beroenak ematea gustatuko litzaidake. Urte luze hauetan egindako lana elgoibartar asko eta askoren bihotzean geratuko da.

**Elisabete Osoro** ☺

### 'Big band'-a

Joan zen astean agertu zen Elgoibarko *big band*-aren aurkezpenari buruz xehetasun batzuk egin nahi nituzke.

Musika Eskolaren 25. urteurreneko

ekintzen artean, bi irakasleri *big band* bat sortzea burutu zitzairen, musika eskolako irakasleak eta ikasle ohiak batuta. Hasiera batean, Xabi Dominguez tronboi irakasleak hasi zuen proiektua, baina eszedentzia baten ondorioz, bere ordezkaria den Iban Guinea elgoibartarrak jarraitu zuen.

Iban Guineak lan itzela egin du orduetik. Santa Zezilia eguneko emanaldi arrakastatsuen ondoren, partaideek jarraitzea erabaki zuten. Hurrengo kontzertua urtarilaren 17an izan zen, eta gaur, hilak 4, Madalako parkean *big band*-a berriz entzuteko aukera izango dugu.

Bukatzeko, "beste musikari batzuk osatua" zioen esaldiak musika eskolako irakasle eta ikasle ohiak egiten diela erreferentzia azpimarratu nahiko nuke.

Agur bero bat

**Joseba Garmendia, Musika Eskolako Zuzendari Pedagogikoa** ☺

### Gaurdanik erabaki dezagun!

Eredu kapitalistaren jokabide espekulaztzaile eta esplotatzaileak krisi ekonomiko larria sortu eta langile eta herri eskubideen higatze nabarmena ekarri du. Hala ere, krisiaren eragileek gobernuen laguntza ekonomikoa jaso dute altxor publikotik, eta finantza entitate handiek eta multinazionalak, diru kopuru erraldoiak irabaziz, zerga ordainketa saihestuz jarraitzen dute, "legeztatutako" paradisu fiskalen bidez. Bitartean, langileok gerrikoa estutu beharraz azaltzen digute soldata, pentsio eta eskubide sozio-laboreen murrizketa.

Testuinguru horretan Madrilgo gobernuaren luzapen hutsa bilakatu diren era-

kunde autonomikoen eraginkortasun ezak agerian uzten du euskal langileen interesei erantzuteko duen agortze politikoa. Nahikoa ez balitz, euskal herritarrok sortu ez ditugun zorrak kita ditzagun nahi dute, espainolen ustelkeriak eta *ladrilla*zok utzitako zuloa estaliz... Azken finean, *España S.A.*-ren porrot ekonomikoa ordain dezagun nahi dute.

Euskal Herriko emakume eta gizonek gure etorkizun instituzional eta ekonomikoaren jabe izan nahi dugu, aberastasunaren banaketa indartzeko, espekulaztzaileak gelditzeko, inbertsio produktiboa garatzeko eta finantza sektore publikoa, industrial, eta soziala bultzatzeko. Krisi ekonomiko eta politiko honetan independentziaren bidean subironatasuna behar kolektiboa da. LA-Bek aldaketa sozialerako eta independentziaren aldeko mugimendu sozial zabal baten parte izateko konpromisoa berresten du. Aldaketa eta etorkizunarekin identifikatu behar den mugimendu bat, konpromisoa, duintasuna, koherentzia eta gizon eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berdintasuna babesteko duena. Independentzia da Euskal Herriaren alternatiba egungo eredu agortu eta inposatzailearen aurrean, eta Iruñako Anaitasun, bihar, ekainak 5, horixe aldarrikatuko dugu. Langileei ekitaldi nazional hau bultzatzeko dei zabala egin diegu. Ekainaren 12an ere beste hitzordu bat dugu Bilbon, gehiengo sindikalak deituta, Zapateroren gobernuaren inposaketak salatzen, eta Euskal Herriak Pariseko eta Madrileko gobernuen txotxongiloa ez duela izan nahi aldarrikatzeko.

**Elgoibarko LAB Sindikatua** ☺

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)


Argitaratzailea:







Ainara Sedano



Noemi Otegi

E p a ,  
Noe. Egu-  
notan iku-  
si ditu-  
dan irudi  
batzuen in-  
guruan idatzi  
nahiko nuke gaur.  
Zalantza handiak di-  
tut gai honen inguruan, eta  
eskertuko nuke irakurleen batek  
edo zuk zeuk argituko bazenizkit, nik neuk

ez dut tutik ulertzen eta.

Kostaldeen Legeari buruz hausnartu nahiko nuke gaur. Itsasaldean bizi garenok behintzat sarri entzun izan dugun zerbait da, inork argi ezagutzen ez duen mamu horietako bat. Zeri eragiten dion, zeri ez, zer debekatzeko duen, zer baimentzen...

### “Itsaso ondoko txiringittoa bota dute Kantabria aldean, Kostaldeen Legea betetzen ez zuelako”

Duela hilabete batzuk entzun nuen bizi osoan itsaso ondoan egon den txiringittoa bota zutela Kantabria aldean, Kostaldeen Legea betetzen ez zuelako. Bizi osoa sardina goxoenak prestatzen eman, eta bat-batean, Kostaldeen Legea betearazten duen izaki gaiztoa agertu zitzaion (40 urte ezkutuan izan ostean) eta egun batetik bestera... txiringittoa desagertarazi! Kostaldeen Legea bat-batean indarrean jarri izan balitz bezala. Eta orain arte non egon da ba lege hori betearazten duen izaki gaiztoa?

Bestalde, oraintsu ikusi dut iruditari Benidormen, itsaslabarraren ertzertzean, bi eraikin itzel egiten ari direla. Eta itzela diodanean, benetan handiak direla esan nahi dut. Hormigoizko eta adreiluzko bi munstro. Baina, beharbada, Kostaldeen Legea betearazten duen izaki gaiztoak ez du Benidorm ezagutuko... Eta zer irudituko zitzaion Almerian Cabo de Gatako parke naturalean hogeitaka pisuko hotela egiten hasi zirenean? Egia da lanak gelditu zituztela, baina... Nik gutxi dakit legediari buruz, baina apustu egingo nuke parke natural batean eraikitako hotelak ez duela legea errespetatzen.


Badakizu zein den justiziaren irudia, ezta? Ikusten ez duen emakume batena, esku artean orekatua dagoen balantza batekin ageri den emakumearena. Ez dakit nik, benetan emakume horrek begietan duen zapi horren atzean zirrikiturik topatu ez ote duen eta benetan balantza hori, beste asko bezalaxe, trukaturik ez ote dagoen. Balantzak izan behar duen oreka hori hain da zaila lortzen, Kostaldeen Legeak ere ez duela lortzen, ezta urrutitik ere, erdiko marrara iristea. Baina horrek ez du esan nahi Kostaldeen Legeak existitu behar ez duenik. Lege guztiek bezalaxe, egiten dugun interpretazio eta aplikazioan dago gakoa. Hain zuzen, turismoa nagusi den herri eta hirietan bereziki beharrezkoak dira Kostaldeen Legea eta beste asko, baina duela hamarkada asko ziren beharrezkoak, dagoeneko zalantzan jartzen dudalako erremediorik ba ote dagoen zonalde horiei itxura txukun bat eman ahal izateko.

### “Turismoa nagusi den herri eta hirietan bereziki beharrezkoa da Kostaldeen Legea”

Egia badiotzut, niri txiringittoa kentzeak ez dit kalte gehiegi egiten, ez baina inoiz oso zalea izan. Ez didate grazia askorik egiten, baina. Behin joango hondartzara, eta sekulako sardina usaina eta zarata. Nahiago izaten dut hondartza lasaiago batera joan, txiringitza beterik dagoen batera baino. Justiziaren irudiaren atzean dagoen emakumea ni banintz, txiringitza gutxi egongo lirake gure bazterretan. Ikusten duzunez, nire interesen arabera oreka daukat nik ere, pertsona izatearekin bat etorriko al da oreka topatzeko ezintasuna?



Elgoibarko Udala



Europako iparraldeko lanaldi malguaren eredura hurbilduta produktibitatea hobetu daitekeela uste du Jaurlaritzak. Ordu gehiago lan egiteak ez duela esan nahi lan gehiago egiten denik.

## Hobetzen da errendimendua lanaldi jarraia eginda?



**Manuel Galindo**  
56 urte, ONCEko kupoi saltzailea

Nire lanean ezin dut lanaldi jarraia egin, baina langileen baldintzak hobetzearen aldekoa naiz. Erretiroa 67 urtera atzeratu nahi dutela esaten ari dira, eta hori ez zait ondo iruditzen. Bizi osoa lanean eman ondoren, orain bi urte gehiago? Ez dago horretarako eskubiderik.



**Severo Perez**  
44 urte, langabetua

Lanaren eta norberaren arabe-rakoa da hori. Eguerdian ordubeteko etena eginda ere, 17:00ak alderako bukatu daiteke zortzi orduko lanaldia. Nire ustez ordutegi ona da hori. 19:00-20:00ak arte lan eginez gero, ez da beste ezertarako denborarik geratzen.



**Yolanda Hernando**  
31 urte, estetizista

Bai, lanaldi jarraia egitearen alde nago. Nire lanean oso zaila da, baina lana eta familia uztartzeko modu ona da lanaldi jarraia. Orain jardunaldi murriztua daukat umearekin egoteko, eta aste bat lan eta beste bat jai egiten dut. Lana tokatzen zaidanean ez ditut etxeokak ikusten.



**Maria Angeles Zabala**  
54 urte, etxeoandrea

Lanbide batzuetan oso zaila da, baina posible den kasuetan egingo nuke. Bulegoetan, esate baterako, ez daukate 19:00ak arte lan egin beharrik. Lanak familiarekin egoteko eta aisialdirako denbora laga behar du. Jendea gusturago joango litzateke lanera.

**BUKATU**  
ECANIZADOS  
S.COOP  
**BUKATU.**

OLASO Poligono Industrialak - Olaso kale, 6  
66 area - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98  
20870 ELGOIBAR  
E-posta: [bukatu@bukatu.es](mailto:bukatu@bukatu.es) - Htt: [www.bukatu.es](http://www.bukatu.es)

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixillon, 2 - 3. soltoa 943 74 35 52 - 74 27 88

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jose Angel Zabala

**MAHASTI**

*Urdaitegia eta ardaitegia*

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72





**Sigmako haur parkea oso egoera txarrean dago:** "Sigma auzoko haur parkea ez dago batere ondo. Zahartuta eta puskatuta dago.

Lurra altxatuta dago zona askotan, eta egurrezko kolunpioak hondatuta daude. Herrian parke berriak egin dituzte, baina Sigmakoa lehen bezalaxe laga dute. Sigma auzoan lehen ume gutxi zegoen, baina azken urteotan gehiago daude. Eguraldi ona egiten duen egunetan hogeitau hamar inguru elkartzen dira parkean, eta arriskutsua da. Ezer gertatu aurretik parkea konpontzeko eskatzen diogu Udalari".



**Mintxeta inguruan jarlekuak falta dira:** "Mintxetako aparkalekuan jarlekuak zeuden lehen, baina obrak egiteko kendu egin zituzten, eta ez dituzte berriro ipini. Bidea oso ondo geratu da, baina jarlekuak beharrezkoak dira. Jende gaztea pretilean eseritzen da, baina nagusientzako ez da batere eroso. Eskertuko genuke eserlekuak berriro jartzea".

**Herria txakur kakaz beterik dago:** "Ubitarte inguruan bizi naiz, eta han inguruko bizilagun guztiek gure etxe ingurura ekartzen dituzte txakurrak kaka egitera. Egun batzuetan hogeitau hamar inguru batzen dira Ubitarte inguruko berdeguneetan, eta dena kakaz beterik lagatzen dute. Txakur jabeek dute errua, ez dituztelako kakak jasotzen. Udalak neurri gogorrak hartu beharko lituzke honelakoan aurrean".

**Idotorbe-San Pedroko mahaia ezin dira bezperatik hartu:** "Jende asko goizean goiz edo bezperan joaten da Idotorbe-San Pedroko mahaia gordetzera, eta hori oso gaizki iruditzen zait. Aurreko asteburuan eguraldi oso ona egin zuen, eta egun pasa joan ginen Idotorbe-San Pedrorra. Irtsi ginenean ez zegoen inor, baina mahaietan mantelak, baldoiak eta hainbat kaxa zeuden. Ez zait bidezkoa iruditzen. Errespetu apur bat eduki behar da horrelakoetan".

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibar.koizarra.com](mailto:barren@elgoibar.koizarra.com) / 943 744 112



I. URTEURRENA

## TXOMIN ETXEBERRIA AGOTE

2009ko ekainaren 5ean hil zen, 86 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, ekainaren 5ean, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren eliz parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



# Gipuzkoako Foru Aldundiak 600.000 euro emango ditu Altzolako errepide zatiko segurtasuna hobetzeko lanetarako

Sigman sarrera-irteera berri bat egingo dutela aurreratu du Elgoibarko Udalak

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak 600.000 euro bideratuko ditu Altzolako zeharbideko segurtasuna hobetzeko lanetara. Hala jakinarazi zuen barixakuan Eneko Goia Azpiegitura Saileko diputatuak, Olasoko errotonda zatitua inauguratzera etorri zenean. 634 errepideko trafikoa “arindu” eta errepide zati horretarako segurtasuna “hobetzeko” lanen proiektua idatzita dagoela jakinarazi zuen Goiak, eta obrak lau hilabeteko epean amaituko direla iragarri zuen. Kilometro erdiko errepide zatia da hobetu beharrekoa, 53,580. kilometrotik 54. kilometrora bitartekoa. Diputazioaren arabera, egunean 10.300 ibilgailu pasatzen dira handik, eta horietatik %9 ibilgailu astunak dira.

Proiektuak hiru ardatz nagusi ditu: autoak astiroago pasa daitezten, 634 errepidea estutu egingo dute, eta bi bide edo lerroak bereizteko barne erdibitzaile bat eraikiko dute. Espaloiak, berriz, zabaldu egingo dituzte, eta Donostiarako bidetik autobus geltokia berrituko dute. Era berean, zubia ere egokituko dute. Zubian metalezko karela jarriko dute bi noranzkoetan, eta zubiaren euste sistema indartu.

## Sigmako sarrera-irteera eta kanposantuko arrakalak

Sigman sarrera-irteera berria egiteko asmoa dutela jakinarazi



zuen Alfredo Etxeberria alkateak, Olasoko errotondaren inaugurazio ekitaldian. Lur asko mugitu beharko dute obra hori egiteko, eta erreka baten gainetik zubi txiki bat ere egin beharko dute. Olasoko errotonda egiteko lanen ondorioz kanposantuan agertu ziren zartadurak ere konponduko dituztela iragarri zuen. Aurten hasiko dituzte lanok, eta 71.000 euroko aurrekontua izango dute.

## Presoen egoera salatu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak euskal presoek espetxeetan jasaten duten egoera salatu zuen joan zen barixakuan eginiko agerraldian. Sakabanaketa, isolamendua, bakartzeak, gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean edota etxean preso mantentzea aipatu zituzten, besteak beste. Hori salatzeko, presoen aldeko mobilizazioak antolatuta dituzte. Ekainaren 12an Castelloko espetxera egingo dute martxa, eta hilaren 19an, elkartasun erromeria egingo dute Sallobenten.



## Otegi buruzko mozioa onartu dute Udalaren osoko bilkuran

Arnaldo Otegiaren Lagunak Plataformari buruzko mozioa onartu zuten egunean Elgoibarko Udaltzaren osoko bilkuran. EAJK aurkeztu zuen mozioa, eta bederatzi zinegotzik bat egin zuten (EAJ, EA eta Aralar). PSE-EE eta PPko bost zinegotzik kontra bozkatu zuten. Mozioak sei puntu dauzka, eta bat egiten du Otegiaren aldeko herri plataformaren adierazpenarekin. Otegiaren senideei babesa adierazi eta politikari aukera bat emateko eskatu dute, besteak beste, agerian.

PSE-EEk eta PPK ez zuten begi onez ikusi mozioa. "Otegi jauna ez dago legearen gainetik, eta bere ekintzen erantzule izan behar du", adierazi zuen Francisco Javier Nuñez PPko zinegotziak [www.ppelgoibar.com]. Ovidio Campello zinegotzi sozialistak, bestalde, bi arrazoi aipatu zituen bere alderdiaren jarrera azaltzeko: batetik, erabaki judizialak errespetatu egin behar direla esan zuen, eta bestetik, mozioaren funtsa gaitzetsi zuen, "ez duelako ETA desagertzea eskatzen".



## Lekua **Kultur Etxea**



Joan zen astean hasi zizuten Kultur Etxean igogailua jartzeko lanak. Beharginek sei hilabeteko epea izango dute eraikin historikoaren ertzean igogailua jartzeko. Udalak jakinarazitakoaren arabera, lanok 142.297 euroko (BEZ-IVA gabe) kostua edukiko dute. Anbulatorioa eta kiroldegia batuko dituen igogailua egiteko lanak ere hastear daude.

## Eguna **Organo Emaileen Eguna**

Ekainaren 2an izan zen Organo Emaileen Nazioarteko Eguna, eta horren harira, informazio mahaia jarriko dituzte asteburu honetan Gipuzkoako hainbat herritan. Elgoibarren, baina, ekainaren 12an jarriko dituzte, Plaza Handian, 11:00etatik aurrera. Emailerik gabe, ez dago transplanterik egiterik eta mezu hori zabaldu du Alcer Gipuzkoa elkarteak. Herritarrek organoak emateari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute, eta nahi duenak organo emaile egiteko aukera ere izango du.

## Irudia **Auto istripua**

Azkarateko bide zaharretik herri erdirantz zetorren lur orotako autoak istripua izan zuen joan zen barixakuan Ermuaranbide kalean. Errepidea bustita zegoen, eta autopistako zubipean dagoen errebuelta hartzerakoan, ibilgailuaren kontrola galdu zuen gidariak. Gidariak autotik bere kabuz irtetea lortu zuen, baina Mendaroko Ospitalera eraman zuten, badaezpada.



## Bihar inauguratuko dute **Idotorbe-San Pedroko lokala**

Bihar eguerdian zabalduko dute Idotorbe-San Pedro auzoko elkarte berria, eta ordubetez izango da lokala bisitatzeko aukera. Ondoren, 13:00etan, harrera ekitaldia egingo dute, eta bertan Txistulariek eta Haritz dantza taldekoek hartuko dute parte. Bertsolarien eta herri kirolen txanda izango da ondoren, eta azkenik, bazkaltzeko batuko dira elkartean bertan.

## Jubilatuaren egoitzako **taberna lehiaketa bidez esleituko du Udalak**

Elgoibarko Udalak lehiaketa publikoa antolatu du jubilatuaren biltokiko taberna zerbitzua esleitzeko. Proposamenak aurkezteko epea hilaren 16ra arte egongo da irekita. Informazio gehiago eskuratzeko Ongizate Sailera jo behar da.


## Institutuko errifaren zozketa

Institutuko DBH4ko ikasleek errifak saldu dituzte ikas-bidaira joateko, eta 2.866 zenbakia izan da saritua. Irabazleak ekainaren 7tik 11ra bitartean jaso dezake mendi bizikleta eta txokoterapiarako bonoa, Institutuan bertan.

## Ikastolaren Eguneko **errifaren zozketa**

Trinitate jaietan egin dute Ikastolaren Eguneko errifaren zozketa. Argazkian ikusi daitezke irabazleak, opariekin.





# Trinitateak, begiratu batean

Musika, dantza, danborrada eta feriak bat egin zuten asteburuan, eta algara eta umorea izan ziren nagusi. Denetarik izan zen Trinitate jaietan, eta oroimenean gordetzeko hainbat irudi bildu ditugu ondorengo orrietan. Irunaso baserriko behiak txahala egin zuen zapatuko ferian, herri-tarrez inguratuta. Agustin Mugertza behiaren jabea ezustean harrapatu zuen erditzeak, eta jai egunaren omenez, Trinitate izena jarriko ziola esan zuen. Era berean, Harri Beltzaren legenda handituz doa, eta aurten ere herritar pila bat batu ziren Nafarroa Plazan idi demak ikusteko. Belarretaren hiru idi eta Valdesen idi parek ziren lehian, eta hirukotea nagusitu zen. Gauean, danbor hotsak nagusitu zen. Gazta izan da aurtengo danborradaren gaia, eta horren arabera antolatu dituzte karroza guztiak. Berrikuntza modura, Azpeitiko zanpantzarrek zabaldu zioten bidea danborradari. Artisau azoka izan zen domekan, eta umeen danborradak zirkoa irudikatu zuen. Mendaron ere jai giroa nagusitu zen asteburuan: trikitilariak, bertsolariak, herri kirolak, ikastolako umeen erakustaldia... denetarik izan zen. **Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)**



200 lagun baino gehiagok hartu zuten parte nagusien danborradan.



Jose Salegi 'Belarreta' omendu zuten antolatzailleek, idi probetan egindako ibilbideagatik. Argazkian, Belarreta eta Ziriako Arrate Irratikoa.



Belarretaren hiru idiek 32 plaza egin zituzten Harri Beltzarekin.



Sukaldariak adi, zuzendariaren aginduek betetzeko prest.



Irati Agirreazaldegi, artisau azokan bitxiak egiten.



Irunasoko behiak txahala egin zuen Trinitate jaietako azokan.







Kanoikadak eman zion hasiera danborradari.



Sabin Longarte eta Bitoriano Loiola trikitilariak Mendaroko Trinitate egunean.



Mendaro Ikastolako umeeek bertso saioa eskaini zuten astelehenean Trinitate elizaren kanpoaldean.



Musika Bandak 125 urte egingo ditu aurten, eta danborradakoek omenaldi txiki bat egin zieten. Juan Carlos Arrietak eman zion oroigarria Jose Antonio Osoro 'Katxo'ri.



Musika Eskolako ikasleek dantza ikuskizuna eskaini zuten zapatuan.





■ TRINITATEAK



21 plaza, lau metro eta 20 zentimetro egin zituzten Evaristo Valdesen idiek.



Ikusmin handia piztu zuen Arturo Andrade eskultorearen luthier postuak.



Jende asko batu zen Mendaron, herri kirolak ikusteko.



Soldaduak, desfileatzen.



Arg: Aitor

Zero Sette akordeoi taldeak itxi zuen domekan Trinitateetako egitaraua. Jende asko bildu zen Madalako parkean.



Zirkoa irudikatu zuen umeen danbo-  
rradako karrozak.



Arg: Aitor

Dantzari txikiek ikusle asko batu zituzten Plaza Handian, zapatu arratsaldean.

Sukaldariak, panderoa astintzen.



Txikiek ere danborra jotzen abilak direla erakutsi zuten domekan.



## Ane Labakak irabazi du Plazatik Gaztetxerako Elgoibarko kanporaketa

Mikel Olaizola hirugarren izan da, Mikel Artolaren atzetik



Joan zen barixakuan jokatu zen Plazatik Gaztetxerako laugarren eta azken kanporaketa, Elgoibarko Gaztetxean. Ane Labakak irabazi zuen saioa, eta zapatu eguerdian Mutrikun jokatu den finalean nortzuk arituko diren ere erabakita geratu zen. Lehen hiru postuetan lehia orekatua izan zen. Mikel Artola alegiarra sailkatu zen bigarren, eta Mikel Olaizola elgoibartarra hirugarren. Azpimarragarria da Olaizolak egin zuen saioa, jende aurrean kantatzeko ohiturarik izan ez arren, bixi-bixi aritu zelako, bertsoa goitik behera ongi osatuz.

Finala Mutrikuko gaztetxean jokatu da, bazkalostean (14:30an da bazkaria), eta hauek izango dira finalistak: Ander Lizarralde, Beñat Iguaran, Ane Labaka, Hodei Barroso, Mikel Artola eta Asier Azpiroz.

## Liverpoolgo ikasle talde bat BARRENEKO erredakzioan izan zen joan zen barixakuan



Elgoibar Ikastolarekin trukean, aurten ere Liverpoolgo ikasleak izan ditugu egunotan Elgoibarren. Gure herria eta inguruak bisitatzeko aukera izan dute. Joan zen barixakuan BARRENEKO erredakzioan ere izan ziren, eta atarian ateratakoea da argazkia. Aurten, gainera, bete-betean gozatu dituzte Trinitate jaiak ere.

### Bertso jaialdia izango da bihar, ekainaren 5ean, Mendaron

Ainhoa Agirreazaldegia, Sebastian Lizaso, Joxe Agirre eta Sustrai Colina arituko dira bertsoan bihar Mendaron, Juanito Loiola gai jar-tzailearen aginduetara. San Agustin kultur etxean izango da bertso saioa, 22:00etatik aurrera.

### UEUK ikastaro sorta zabala antolatu du udarako

Udako Euskal Unibertsitateak ikastaroak antolatu ditu ekainaren 28tik uztailaren 23ra bitartean. Aurten, 38 ikastaro eskainiko ditu. Ikastarotetz gain, bi astetan zehar makina bat praktika, jardunaldi eta emanaldi ere izango dira. Honako jakintza gai hauek izango dira aukeran: pedagogia, kazetaritza, bertsolaritza, kirola, osasuna, sexologia, itzulpengintza, artea, literatura, bertsolaritza, informatika, kimika, ekonomia, yoga... Ikastaroei buruzko informazio gehiago [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean aurki daiteke, eta dirulaguntzei buruzko informazioa [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) web gunean, Euskara sailaren atalean. Ekainaren 20an bukatzen da izena emateko epea.

### Biraka taldeak ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du gaur zortzi

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako jaialdia antolatu du hilaren 11rako, Herriko Antzokian. 20:00etan hasiko da saioa, eta Elgoibar, Eibar eta Debako 130 dantzarik parte hartuko dute. Antolatzaileek esan dutenez, ordu bete eta hamar minutu inguruko saioa izango da, eta emanaldirako sarrerak Pitxintxu dendan jarri dituzte salgai, bi eurotan. Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute ekainaren 20ra arte zabalik egongo dela datorren ikasturterako izen emateko epea. Izen emateak kiroldegian egingo dira.

# URPEKO BATAIOA



Urpekaritzan urpeko lehen bataioa moduan ezagutzen dena [urpekaritza gogoko dugun jakiteko lehen kontaktu modukoa da] probatzeko aukera eduki zuten dozena bat lagunek joan den zapatuan, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Urpekaritza modu errazean eta arriskurik gabe erakustea zen Elgoibarko Urbizi urpekaritza taldeak antolatutako jardueraren helburua. Ion Larrañaga Urbiziko kidearen gonbiteari erantzunez, urpean murgiltzeko proposamenari baietza eman zion BARRENEK, norberak probatzea delako askotan gauzak ezagutzeko modurik zuzenena.



**Asier Orbea**

*Asier Orbea BARRENEko kazetaria, Olaizagako igerilekuan, urpekaritza bataioan.*

**O**nartu behar dut ilusioa egin zidala uretan murgiltzeko proposamenak. Hotzean berriz pentsatu ondoren, ordea, igerileku baten hondoa ezagutzeko aukerak ez ninduen horrenbeste kitzikatzen. “Itsasoa ederra da, baina zer eduki dezake ikusteko igerileku baten hondoa, baldosak edo, beharbada, igerilariren batek galdutako lentillaren bat ez bada?”, pentsatu nuen. Eta aldarte horretan agertu nintzen igerilekura. Oker nembilela aurreratuko dut.

Igerilekuan sartu eta atentzioa deitu zidan lehenengo gauza zera izan zen, urpean ibiltzeko zenbat tramankulu behar diren ikustea: hegalak, urpeko betaurrekoak, aire konprimatuko botilak, erregulatuzaileak, flotazioa kontrolatzeko txalekoa, airea eta denbora kontrolatzeko bestelako instrumentuak... Guzti horiek nik neuk maneiatu behar izanez gero, bertan itotzeko arriskua nuela pentsatu nuen. Zorionez, Urbiziko kideek [Ion, Jose Ig-

nacio, Angel, Miguel, Bego, Asier eta Ainhoa] pausoz pauso erakutsi zizkiguten bakoitza nola erabili behar den, eta azalpen teorikoen ostean, banan-banan probatzen hasi ginen; hankekin lurra ukituz lehenik, itolarririk ez sortzeko, eta alderik alde paseoa emanez gero, txandaka.

**“Handia da urpean nahi adina denbora egon gaitzkeela sentitzea”**

Atentzioa deitu zidan bigarren kontua aire erregulatuzailearen funtzionamendua izan

zen. Aire konprimatuko botilatik datorren oxigenoa arnasteko balio du erregulatuzaileak. Sagar bat baillitza hozka egin behar zaio erregulatuzaileari, eta ahotik hartu eta bota behar da arnasa [nire ezjakintasunean sudurra ere zerbaitetarako erabiliko zela uste nuen]. Uretatik kanpo probatzen denean, ez dauka beste munduko misteriorik, baina burua uretan murgiltzerakoan sentitzen dena berezia da. Nola ez da berezia izango ur azpian arnasa hartzea? Erregulatuzailetik botatzen dugun arnasak sortutako burbuilak ikustea ere bixia da, eta hasierako segundoetan kostatzen da egiten da ohitzea. Lasai egon arren, burbuil bidez arnasaldi guztiak ikusten dira urpean –ur azalean ez bezala– eta urduritasunaren ondorioz, arrotza zaigun ingurunean gorputzak daukan erreakzioa izan daitekeela pentsa dezakegu. Konfiantza kontua da.

Sentsazio berrietara ohitutakoan erraza da isiltasun mundu berri honetara ohitzea. Handia da, izan ere, urpean nahi adina den-



bora egon gaitezkeela sentitzea. Abilezia berriak –urpean arnasa hartzea– probatu eta inguruak ezagutzeko gogo sortzen dira gero. Olaizaga kiroldegiko igerilekua ondo baino hobeto ezagutzen dudan arren, hondoa esploratzeko ordua da. Hondoko baldosak ukitezaraino jaitsi eta alderik alde zeharkatu dut igerilekua, hegalei astiro-astiro eraginez, ez dago-eta prisarik. “Zenbat eta energia gutxiago xahutu, oxigeno gutxiago gastatuko dugu, eta denbora luzeagoan egon gaitezke ur azpian”, azaldu digu Jose Ignaciok ur azalean.

Konfiantza hartu ahala, maniobra ezberdinak probatzen hasi naiz; behera, gora, hondoan eseri, eskaileren azpiari begiratu bat... Buelta eman eta hondotik ur azalera begira jarri naitekeela ere konturatu naiz. Igerilariak ikusten ditut ur azalean, urpean gabilzantotaz gehiegi arduratu gabe.

Hondoan mantentzea kosta egiten zait. Urpekaritza ekipoak asko pisatzen du uretatik kanpora, batez ere aire konprimatuko botilagatik; ur barruan, aldiz, kosta egiten da igerilekuaren hondoan mantentzea. Flotazioa kontrolatzeko txalekoa airez betea dago, eta

ur azalerantz eramaten gaitu. Honek ere badauka erregulatuzailea. Hiruzpalau minutu uretan pasatu eta gero, amaitu dira ikusi beharrekoak, baina gustura jarraitzen dut ur azpian. Ordua gainean dugu, eta uretatik irten beharra dago. Demaseko esperientzia izan da bataioa, erabat gomendagarria. Urpeko sentsazioak probatu dituzten gainerako lagunak ere antzera daude. Sakontzeko grina piztu zaie, eta hurrengo pausoa emateko zer egin behar duten galdetu diete askok Urbiziko kideei. Ideia bera dabil borborka gu denon buruetan: Eta itsasoko bataioa noiz?

## AINHOA ETA ASIER ETXEZARRAGA ANAI-ARREBAK

Urbizi urpekaritza taldeak 50 bazkide inguru ditu. “Gehienak urpeko arrantzan ibiltzen dira. 15-20 lagun izango gara aire konprimatuko botilekin ibiltzen garenak, eta bostek konplexuagoa den urpekaritza teknikoak egiten dute itsasoan eta kobetan”, azaldu du Asier Etxezarraga Urbiziko kideak. Urpeko bataioa moduko ekintzak euren taldea eta kirola indartzeko antolatzen dituztela gaineratu du Ainhoa Etxezarragak, Asierren arreba. Ikastaroak ere antolatu izan dituzte, baina Kantauri itsasoak ez ditu gauzak gehiegi errazten. “Olatuen, mareen eta korronteen erruz, gutxitan ematen dira urpean segurtasunez aritzeko baldintza aproposak. Ikastaroak asko luzatzen ditu horrek. Ur nahiko ilunak dira, gainera, eta horrek ere jendea atzera botatzen du”. Hala eta guztiz, probatzen dutenak txundituta geratzen ei dira euskal itsasbaterrean ikusi daitezkeen gauzakin. “Gauza zoragarriak ikusteko ez dago 40 metrora arte murgildu beharrik. Hamar metrora arte dago bizitza gehiena, eta kolore guztiak (argi falta dela-eta koloreak desagertzen hasten dira hamar metrotik behera).



*Urpeko bataioan parte hartu zuten lagunak Urbiziko kideen azalpenak entzuten, uretan murgildu aurretik.*

Oporrak urpekaritza egiteko aukeraren arabera antolatzen ditu Asierrek, eta bere afizioak munduko lekurik exotikoena ezagutzera eraman du: Malaysia, Ekuador, Maldivak, Itsaso Gorria, Mikronesia, Galapagoak, Palaos... Euskal Herriko bere lekurik kuttunenak ere aipatu dizkigu: “Mutrikun asko ibili gara,

Getarian ere bai, Donostia aldean leku polit asko dago, Bermeon... asko dira leku politak”.



*Asier Etxezarraga Bigarren Mundu Gerrako tanke baten ondoan Truk irletan, Mikronesian.*

Urpekaritza ez dela beste kirol batzuk baino garestiagoa uste dute Etxezarraga anai-arrebek. “Gogoko dugun edo ez jakin arte material ia guztia alokatzeko aukera dago, gainera. Lehen ikastaroak, gutxi gorabehera 300 bat euroko kostua izan dezake, instruktoreak eta materiala barne”. Hain zuzen, materialari dagokionez, teknologia berriek aurrerapen handiak ekarri dituzte. “Askok hobetu da segurtasunean, eta lehen buruz egin behar izaten ziren kalkulu asko, esaterako, ordenagailuek egiten dituzte gaur egun. Aurrerapenen parean hobetu ez dena gure kontzientzia ekologikoa dela salatu dute biek. Lehen eta orain oso zikin jarraitzen dute itsas bazter eta hondoek. Edozer gauzarekin topo egin daiteke ur azpian, bizikletak, bateriak, komunak, sukaldeak... zikin koadrila bat gara”. Zikinkeria guzti horiek gero eta jende gehiagok ikusten dituztela gaineratu dute, asko hazi baita urpekaritzarako afizioa. Ezkon-bidaian edo oporretako bidaietan izaten dute askok lehen kontaktua urpekaritzarekin, eta gehiago probatzeko gogoz itzultzen dira asko. “Egia da, baita ere, desengainua hartzen dutela, ezin konpara daitezkeelako urpeko paradisu horiek Kantauri itsasokoekin. Hobe da, aukeran, hemen hasi eta gero horietako lekuren batean murgiltzea”.

# MARKEL BERGARA

Futbolaria

Hiru partida falta dira Bigarren Mailako Liga txapelketa amaitzeko, eta Real Lehenengo Mailatik pauso batera dago. Pauso hori, baina, eman egin behar da. Bigarren itzuliko amaiera honetan puntu asko galdu ditu talde txuri-urdinak, baina, hala eta guztiz ere, lehenengo postuari eustea lortu du. Markel Bergara elgoibartarrekin hitz egin du BARREnek liga amaieraz.

“Lehenengo Mailan jokatzeko ilusio handia daukat”

**Bihar, Cadizen, Lehen Mailarako igoera ospatuko duzuela uste duzu?** Baliteke. Guk irabazten badugu eta Betisek ez badu irabazten, matematikoki Lehenengo Mailan egongo ginateke. Sekulakoa izango litzateke, baina benetan igoko garela jakingo banu, ez litzaidake axolako astebete atzeratzea egun hori, Anoetan. Cadizera ere zale asko joango dira, baina Anoetan igotzea desberdina izango litzateke. Nik nahia- go izango nuke etxean igotzea, zale guztien aurrean, eta Donostia guztia gurekin dagoela.

**Cadizen edo Donostian, baina igoko zaretela sinistuta zaudete?**

Hiru partidetatik bat irabazita nahikoa izango da. Gure atzetik dauden taldeek denak irabazi beharko litzukete eta guk denak galdu. Gainera, beraien artean ere jokatu behar dute, eta nik uste dut hiru puntu- rekin nahikoa izango dugula.

**Lehenengo itzuli oso ona egin zenuten. Zer gertatu da bigarren itzulia?**

Egia esanda, bigarren itzulia ez dugu ona egin, eta hor goian baldin bagaude, lehenengo itzulia osoondo jokatu genuelako da. Lehenengo itzulia edozein modutan botata ere, sartzan genuen baloia sarean, baina orain ez. Azalpenak bilatzen eta ematen ahalegintzen gara, baina ez dugu aurkitzen. Futbola horrelakoa da. Jokalariak berdinak gara, eta baldintza berdinetan jokatzan dugu, baina golak sartzan ez direla ikusita konfiantza galtzen da, eta futboleko konfiantza ezinbestekoa da.

**Lehenengo Mailan lehiazeko taldea duzuela uste duzu?**

Argi dago fitxaketak egin beharko direla, baina oinarritzko blokea osa-



tuta dago, eta hori oso garrantzitsua da. Nik uste dut gai garela Lehenengo Mailan jokatzeko. Real Madril eta Bartzelona beste maila batean dabilta, eta hurrengo bost sailkatuek ere maila ona ematen dute, baina gainerako guztiok antzera gabiltza.

**Zer izango da zuretzat Lehen Mailara igotzea?**

Alde batetik lasaitasuna emango dit. Hiru urte daramatzat taldean, eta hirurak Bigarren Mailan. Herri txiki batean bizi gara, eta zaleek euren sentimenduak transmititzen dizkizute, onak zein txarrak. Aurten onak izan dira guztiak, eta haiek ere lasaitasuna hartuko dute igotzen bagara.

**Hiru urte egin dituzu Bigarren Mailan Realarekin. Askok uste dutena baino zailagoa da mailaz igotzea?**

Nire inguruko jende askok Real beti ezagutu du Lehen Mailan, eta, askok uste zuten Bigarren Mailan jokatzeko erraza izango zela, baina ez da horrela. Nire ustez errazagoa da Lehen Mailan mantentzea, Bigarren Mailatik igotzea baino.

**Maila pertsonalean, gustura zaude egindako denboraldiarekin?**

laz ia denboraldi guztia jokatu nuela kontuan izanik, aurten minutu- gehiago jokatzeko espero nuen. Entrenatzaileak beste jokalaririk batzuk aukeratu zituen, eta emaitza onak lortzen zirenez, ez zen erraza talde horretan sartzea. Nire papera beste bat izan da aurten, baina ia partida guztietan jokatu dut, eta taldeko kide sentitzen naiz, dudarik gabe. Oraindik beste hiru denboralditarako kontratua daukat Realarekin, eta espero dugu Lehen Mailan izatea. Lehen Mailan jokatzeko ilusio handia daukat.



# Unai Salegi eta Mikel Ugartetxearen arteko apustua domekan, Mendaron

Korrika igo behar dute Lizarpera, eta aizkoran egin gero

**A**pustu erakargarria jokatuko dute domekan, hilaren 6an, Unai Salegi *Sarobe*-k eta Mikel Ugartetxea *Rubio*-k Mendaron. Sarobek eta Rubiok bost kilometro inguruko ibilbide gogorra osatu beharko dute korrika lehendabizi, Mendaroko udaletxe paretik irten eta Lizarpe gainera arte. Aldapa pikoetan indarrak neurtu ostean, kana erdiko bi enbor ebagi beharko dituzte ondoren, Lizarpen. 11:00etan irtengo dira Herriko Enparantzatik korrika. Herri kirolen munduan eta apustuen saltsan ibilitakoak dira biak ere, eta domekako lehiak ikusmin handia sortu du Mendaron, eta baita inguruotako herrietan ere.



## Jon Larrañagak bigarren egin du Gipuzkoako lokotx batze txapelketan

Gipuzkoako lokotx batze txapelketa jokatu zen domekan Urnietan, eta Jon Larrañaga mendaroarrak bigarren egin zuen, 6 minutu eta 37 segundoko denborarekin. Eneko Garmendia baliarraindarrak irabazi zuen, eta Gotzon Zulaika mendaroarrak laugarren egin zuen, Harkaitz Astiazaranen atzetik. Lehenengo hiruren artean sartzetik segundo eskasera gelditu zen Zulaika. Jon Larrañaga, berriz, Euskadiko Txapelketarako sailkatu da.

## Gotzon Zulaika eta Adur Juaristi onenen artean, 23 urtez azpikoen Aramotzeko mendi lasterketan



Hiru irabazleak, garaikurrekin: Adur Juaristi, Gotzon Zulaika eta Ander Garmendia.

Gotzon Zulaika mendaroarrak irabazi zuen Aramotzeko mendi lasterketa, 23 urtez azpikoetan, eta Adur Juaristi hirugarren sailkatu zen, Ander Garmendiaren atzetik. Zulaikak 1:19:20ko denboran osatu zuen ibilbidea, eta zortzi minutuko aldea atera zion bigarrenari. 23 urtez azpikoen Euskadiko Txapelketako lehenengo proba izan zen domekakoa. Beste hiru proba jokatuko dira, eta hauek dira beste hirurak: Orozko Harana (ekainaren 20an), Zumaiako FLYSCH Mendi Lasterketa (uztailaren 11n), eta Olazagutia-Urbasa Mendi Lasterketa (irailaren 25ean).

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Añorga 1 (4) – Elgoibar 1 (2) (Kad.)

Beti Ona 5 – Elgoibar 1 (Infantilak)

Elgoibar 1 – Ostarad 4 (Emakumezkoen liga)

### ESKUBALOIA

Egia Relojeria Mikel 30 – Alcorta 26

Grupo Eibar Sanlo 22 – Jauja G.E. 10

Grupo Eibar Sanlo 11 – Aiala Ostalaritza Eskola 17

Mendealde (Araba) 12 – Federopticos Ikus 18

Urdaneta (Bizkaia) 15 – Federopticos Ikus 10

### PELOTA (LAGUNAK TXAPELKETA)

Beraza 8 – De la Arada 18 (Alebinak)

Odia 15 – Uruzola 18 (Alebinak)

Agirrebeña 18 – O.Ruiz 3 (Infantilak)

Larrea 9 – Gurrutxaga 18 (Infantilak)

Loidi 18 – Idigoras 16 (Infantilak)

### PELOTA (ELGETAKO LAU T'ERDIKOA)

Atxotegi 16 – Huntoria 22 (Nagusiak)

Arribillaga 7 – Larrañaga 22 (Nagusiak)

## AGENDA

### ESKUBALOIA

Alkorta- Soraluze Bergara (Ekainaren 5a, 20:00etan).

### Finalista eguna ospatuko dute domekan, San Pedron

Urtero legez, finalista eguna ospatuko dute domekan, San Pedron. Urtean zehar egindako mendi zerrendaren arabera, dominak banatuko dituzte han, eta ondoren bazkaltzeko biduko dira mendizaleak.

### Eskolarteko xake txapelketa, jokatuko da bihar Elgoibarren

Eskolarteko xake txapelketa jokatuko da bihar, ekainaren 5ean, Elgoibarren, pista beltzean dagoen xakeko lokalean. 11:00etan hasiko da txapelketa, eta izenemateak egunean bertan egingo dira, hantxe bertan, 10:45etik aurrera.

### Elgoibar Bi Erroberatan antolatu dute hilaren 13rako

Elgoibar bi Erroberatan antolatu du Herri Eskolak hilaren 13rako. Plaza Handitik irtengo dira txirrindulari gaztetxoak, eta herriko kaleetan barrera ibili ostean, Sallobenterantz abiatuko dira. Bukatu ere, Herriko Plazan bukatuko dute, mokadutxoa janda.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, adinekoak zaindu edo tabernan lan egingo nuke. Papelak legeztar ditut. ☎ **662 247 584**
- Mutila baserrian, sukaldari laguntzaile edo nagusiak zainduz lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **646 321 678**
- Neska edozein lan egiteko prest, abuztuan: garbiketa lanak, nagusiak edo umeak zainduz... ☎ **609 217 705**
- Mutila lanerako prest. Sukaldari arabiarra naiz, eta sukalde laguntzaile moduan edo okin lanak egingo nituzke. Etxeko lanak edo nagusiak ere zainduko nituzke. ☎ **609 217 705**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **609 217 705**
- Neska sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. Bost urteko esperientzia. ☎ **600 020 985**
- Mutila zerbitzari lanak egiteko prest. 13 urteko esperientzia daukat. Hemengoa. ☎ **699 282 308**
- 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **626 206 635**
- DBHko gaztelania eta matematika klaseak emango nituzke ekainean eta uztailan. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**
- Neska lanerako prest. Tabernak, portalak edo elkarrekin garbitu edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **699 609 190**
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan edo orduka. Esperientzia daukat. ☎ **628 014 327**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **636 120 425**
- Emakumea garbiketa lanak egin, eta nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Emakumea astean zehar lan egiteko prest. Interna moduan, etxeak garbitzen edo umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **666 771 701**

- Gizona sukaldari laguntzaile, lorazain edo igeltsero laguntzaile lanetarako prest. ☎ **688 647 664**
- Neska gaztea, umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **657 142 376**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Portalak edo tabernak ere bai. ☎ **663 786 976**
- Ordenagailuak konpontzen dira. Merke. Etxez etxeko zerbitzua. ☎ **646 743 828**

**ESKAITZA**

- Familia euskaldun batek Au-Pair bat behar du beraiekin bizitzeko. Irailtik uztailera. [mirenlondon@hotmail.com](mailto:mirenlondon@hotmail.com)
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943 743 196**
- Kamareroa behar da. ☎ **634 799 201**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Etxea alokatzen dut Benidorm-en. Erdigunean, hondartzatik gertu, eroso, aire egokitua eta igerilekuarekin. ☎ **943 740 628**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **606 169 667**
- Emakumea alokatzeko etxe bila. Bi logela, eta kontratoarekin. ☎ **600 020 985**
- Etxea hartuko nuke alokairuan, bikotea eta ume baten zainketa. ☎ **699 282 308**
- Etxea salgai Elgoibarko erdigunean. Eguzkitsua, eta logela guztiak kanpoaldera begira. Bi logela eta egongela. Berritua. 133.000 euro. ☎ **620 748 635**
- Etxea salgai. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Berritua. Sukalde handia, bi logela eta egongela. Prezio onean. ☎ **699 209 844**

- Etxea salgai Caparrosen. Hiru solairukoa. 150.000 euro. Negoziatzeko prest. ☎ **652 768 970**
- Etxea salgai Ubiltarten. Bi logela, sukalde-jangela, kumina eta ganbara. Dena berritua. 180.000 euro. ☎ **629 402 313**

**GARAJEAK**

- Garajea alokatzen da Pedro Muguruza 11n. ☎ **605 775 398**
- Autoa edo furgoneta sartzeko moduko garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. Merke. ☎ **646 966 198**
- Marradun garajea alokatzen dut Leku Ederren, 4. solairuan. 55 euro hilean. ☎ **660 042 159**

**LOKALAK**

- 125 metro koadroko lokala alokatzen dut, erosteko aukerarekin. Lehen taberna zen eta elkarte bat egiteko edo biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. ☎ **649 446 716 (19:00etatik 22:00etara)**

**BESTELAKOAK**

- AC/DC taldeak ekainaren 28an Bilbon emango duen kontzerturako sarrerak behar ditut. ☎ **671 841 563**
- Volkswagen furgoneta erabiltzeko bizikletak garraiatzeko erosi nahi nuke. ☎ **671 841 563**

**OHARRA:**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero [barren.iragarkilaburrak.com](http://barren.iragarkilaburrak.com) atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

**MODULOAK**

Lana / Bestelakoak  
**Astebete : 5 euro**  
**2 aste : 8 euro**  
**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra  
**Astebete : 10 euro**  
**2 aste : 17 euro**  
**3 aste : 25 euro**

**Jarri ezazu zure publizitatea**

**B**  
**BARREN**  
**astekarian**  
**943 743 704**







• Zorionak, **Ikerl** Gaur 2 urte! Muxu handi bat familia-koen eta, bereziki, lbaren partez.



• Zorionak, **Ikerl** Zazpi muxu potolo Aramaixotik, Janire eta etxe-koen partez.



• Zorionak, **Joane**. Egun ona pasa! Mila muxu eta besarkada handi bat Sararen partez.



• Aupa, **Moxo!** Zorionak! Gero eta gazteago zaudel! Zure lagun- en partez.



• Zorionak, **Sara**, asteazke- nean 5 urte egin zenituelako. Familia guztiaren partez, eta bereziki, Rokeren partez.



• Zorionak, **Maddi**, larun- batean 3 urte egingo dituzulako. Unax, Ane eta fami- lia-koen partez.



• Zorionak, **printzesa**, ekai- naren 1ean urte bat egin duzulako.



• Zorionak, **Susane**, 3 urte egingo dituzulako ekai- naren 8an. Lagunen eta etxe-koen partez.



• Zorionak, **Asier**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Etxe-koen, lagun- en eta arrea Oihaneren partez. Muxu handi bat.




• Zorionak, **Garazil** Bihar 6 urte! Muxu handi bat, fami- lia-koen eta, bereziki, Uraitz, Naroa, Laia eta amama Puraren partez.



• Zorionak, **Josu**, ekai- naren 3an urte bat egin duzulako. Familiako- en partez.



• Zorionak, **June**, lau, lau, lau, sardina *bakalau!* Mila txoko-marrubizko muxu, etxe-ko guzti- en partez.



• Zorionak, **pareja!** Azkenean iritsi da zuen eguna! On- do pasa bihar, eta ez dadila txanpainik falta! Kontuz le- hoiekin. Elgoibarko eta Debako lagun- en partez.



• Ibili eta ibili, eta ailegatu da eguna!. Ondo- ondo pasa, koadrilako- en partez.



• Zorionak, **bikote**, asteartean 8 urte bete zenituzelako. Etxe-ko guzti- en partez.



• Zorionak, **Juli eta Leire**, gaur eta astelehena egun handiak izango direlako zuentzat. Muxu bat, etxe-koen partez, eta bereziki, Ireneren partez.



• Zorionak, **Leire eta Egoitz**. Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Arostegiko- en partez.




• Zorionak, **June eta Ariane**, gure etxe-ko sorgintxo- ei. Muxu handi bana fami- lia-koen partez.



• Zorionak, **tio Anton eta tia Marife**, zuen zilarrezko ez- teietan. Familiako- en partez.



• Zorionak, **Maria Luisa Garate eta Luis Clerique**, zuen urrezko ezteien- gatik. Ondo igaro eguna, eta izan zo- riontsu aurrerantzean ere. Bihotzez, denon partez.



• Aupa, **danborrerak!** Iritsi da zuen egun handia. Zorionak eta ondo pasa zuen ezkontza egunean, dan- borradako lantaldearen partetik.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## OKINDEGIA

6 domeka IBARRENEA

## FARMAZIAK

	<b>24 ORDUZ</b>
4	Yudego
5	Zabaleta Goizez, Garitaonandia-Bidasolo
6	Zabaleta
7	Etxeberría (Errosario)
8	Ibañez
9	Garitaonandia-Bidasolo
10	Etxeberría (Santa Ana)
11	Fernandez

**Ibañez**  
Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

**Fernandez**  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

**Zabaleta**  
Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 4 barixakua

### Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa

2tik 6 urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa, Plaza Handian. Antolatzailea, Elgoibarko Izarra.

### Festa

18:30 Ikasleen agur festa

Pilar Ikastetxeko ikasleen agur festa, Pilar Ikastetxean.

### Musika

22:30 Big Band taldearen kontzertua

Elgoibarko Big Band taldeak kontzertua eskainiko du, Madalako parkean.

## 5 zapatua

### Kirola

10:00 Igeriketa eguna

Olaizaga kiroldegian, 6tik 14 urtera arteko umeentzat.

### Kirola

11:00 Eskolarteko xake txapelketa

Zubiondo elkarteak antolatuta, Pista Beltzeko lokalean.

### Kirola

16:00 Rallysprint

Aiastia-San Migel auzoan egingo dute auto lasterketa. Ordu bete lehenago itxiko dute bidea.

### Inaugurazioa

12:00 Idotorbe-San Pedro auzoko lokalaren inaugurazioa

Elkarteko lokalak zabalduko dituzte herritarrentzat, eta 13:00etan egingo dute ekitaldi ofiziala. Txistulariek eta Haritz dantza taldekoek hartuko dute parte, eta auzoan hildakoak omenduko dituzte. Bertsolari eta herri kirolen txanda izango da ondoren, eta 14:30ean elkartean bertan egingo dute bazkaria.

## 6 domeka

### Kirola

11:00 Apustua

Mendaroko Unai Salegik eta Mikel Ugartetxeak apustua egingo dute. Lizarpera korrika igoko dira lehenengo, eta ondoren, aizkoran egingo dute. Irteera, Mendaroko udaletxe parean.

### Kirola

12:30 Finalista eguna

Morkaiko mendizale elkarteok dominak banatuko dituzte, urtean zehar egindako mendi kopuruaren arabera. 10:30ean abiatuko dira Plaza Handitik Idotorbe-San Pedrorantz.

### Musika

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Aurretik, kalejira egingo dute.

Egitaraua:

1. *Don Felix*, pasodoblea (C. Sanchez).
2. *La dolorosa*, aukeraketa (J. Serrano).
3. *Betiko Oskorri*, euskal kantak (I. Urkizu).
4. *Exodo*, filmaren soinua banda (E. Gold).
5. *El último mohicano*, filmako abestia (T. Jones).
6. *Macarena*, manbo (P. Prado-Arr. C. Sanchez)

## 10 eguena

### Hitzaldia

20:00 Familia konstelazioak

Kemen belardendan izango da familia konstelazioei buruzko hitzaldia, eta hilaren 13an gai berari buruzko tailerra egingo dute.

## 11 barixakua

### Dantza

20:00 Biraka dantza taldearen jaialdia

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako dantza ikuskizuna eskainiko du, Herriko Antzokian.

## LUDETEKAKO EKINTZAK

	<b>BARIXAKUA 4</b>
	Marrakzi txokoa 17:30
	<b>ASTELEHENA 7</b>
	Wii 17:30
	<b>MARTITZENA 8</b>
	Antzerki jolasak 17:00
	<b>EGUAZTENA 9</b>
Eskulanak 17:00	
<b>EGUENA 10</b>	
Kanpo jolasak 17:30	

## GAZTELEKUKO EKINTZAK



**DOMEKA HONETAN,  
EKAINAK 6,  
ARRATSALDEKO  
18:00ETAN,  
FUTBOLIN TXAPELKETA  
ANTOLATU DUGU DBH1.  
MAILAKO GAZTEEK.  
ANIMATUKO AL ZARA?**



**Belaustegi  
Baserria**



**JATETXEA**

San Migel Gaina z/g  
Tel. 943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)



11. urteurrena



**Dastatzeko menua ekainaren 10etik 15era.  
Edaria eta kafea 37,50 euro (+ bez)**

Portxe-jardineko jaiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.  
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 22:00etatik aurrera kopak jardinean.



## Erretratu zaharra



1978

Gaurko erretratu hau Carlos Panizok ekarri digu. Bukatu berri dira Trinitateetako jaiak, eta argazki hau ere Trinitateetako jaietan egindakoa da, orain 32 urte. Orduan, gaur moduan, danborrada izaten zen jaietako egitarauko ekitaldirik garrantzitsuenetakoa, eta jende ugari batzen zuen. Argazkiko hiru lagunak neba-arrebak dira: Joseba, Edurne eta Carlos.

Ikasketa Zentroa

UZTAILEAN

**BART**

➔ **Ingelesa 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat** modu dibertigarrian: jolasak, abestiak, antzerkia, eskulanak, informatika. **SUMMER ENGLISH for KIDS.**  
Ingelesa Gazte eta Helduentzat: Ikastaro trinkoak.

➔ Eskola-laguntza: LH, DBH, Batxilergoa, Unibertsitatea.  
Ikasgai guztiak.

San Bartolome 25, behea - Tel.: 672 763 264 / 696 295 098



# K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44 / 653 825 606

**Uztailaren 1etik 28ra ingeleseko ikastaroak goizez.**

- Haur eta gazteentzako eskolak orokorrean.
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza  
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
- Batxilergoa.

**Izen ematea ekainaren 29ra arte.**

DEITU INFORMAZIO GEHIAGO ESKATZEKO.



CAMBRIDGE Unibertsitateko  
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



- ♦ 2010/2011 ikasturterako matrikula zabalik.
- ♦ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ♦ Cambridge azterketen prestakuntza:  
- Young Learners, Ket, Pet, First Certificate, Advanced

I AM  
TÚ ERES

... هي

**GU GARA**

VOUS ÊTES  
ELES SÃO

Udako  
ikastaroak  
2010

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

### UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

2. DEIALDIA PRESTATZEKO IKASTAROA

HABEren 3. MAILA ETA EGA

Uztaila – Iraila

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra, 3 ordu egunean.

Irailaren 6tik 17ra, 2 ordu egunean.

**PREZIOA: 115 euro**

**Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 73 euro**

Bekatzeko sistema

**MATRIKULALDIA:** Ekainaren 23ra arte

Nafarroa eparantza, 2 - 20870 **ELGOIBAR**

Tel: 943 74 27 31

E-posta: [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

**Ikur libreak, ez dira.**

Ikur libreak ez dira. Euskararen erabilera eta garapena sustatzeko, udal erakundeek ikur libreak ez dira. Euskararen erabilera eta garapena sustatzeko, udal erakundeek ikur libreak ez dira.

Ikur libreak ez dira. Euskararen erabilera eta garapena sustatzeko, udal erakundeek ikur libreak ez dira.



# 8. EDIZIOA

# IMH SARIAK



- Ikasle ohi aipagarria
- Ikasle aipagarria
- Fabrikazio Arloko ikaslea 2009-2010



## ■ Helburua:

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

## ■ Proposa ezazu ikasle ohi aipagarria:

- Telefonoz: 943748265 (Amaia Ansola)
- [www.imh.es](http://www.imh.es) webean, bete formularioa

Proposamenak aurkezteko epea: ekainak 6

## ■ Sarien jakin arazpen eta banaketa ekitaldia:

2010eko ekainaren 18an

Informazio gehiago: [www.imh.es](http://www.imh.es)

## Enpresa babesleak:



## Enpresa Kolaboratzaileak

ALCORTA FORGING GROUP, S.A. - DPH DESARROLLO DE PROYECTOS HIDRAULICOS, S.L. - ENGRANAJES GRINDEL, S.A.L. - GORATU MAQUINAS-HERRAMIENTA, S.A. - IBARMIA, S.A. - ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES S.L., IMS CONSULTORES, S.L., INDUSTRIAS ALGA, S.A. JUARISTI, S.L. - LAIP, S.A. - PIERBURG, S.A. - SISTEPLANT, S.L.

